

5. ALDIZKARIA - 2005ko urtarrilaren 12a

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.3. BESTELAKO XEDAPENAK

2.3.3. Nahitaezko Desjabetzapenak

ANTSOAIN

EDIKTUA

Antsoaingo Udalak, 2004ko azaroaren 24an egin osoko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

"Jendaurrean egon beharreko epea iragan baita, "Ezkaba-Kanala sektorean desjabetzapenetik libratzeko ezarritako baldintzetako bederatzigarrenaren aldaketa" onetsi zenetik,

Ondokoa erabaki da:

1. 2004ko irailaren 20ko alegazioen txostena onestea, espedientera bildu baita, Construcciones Sanzol, S.A.k eta Prodinver, S.L.k aurkezturikoak baiestuz, hau da, merkataritzako sozietateak eratzeko baimena pertsona fisikoei emateaz gain pertsona juridikoei ere emanez, betiere Ezkaba-Kanala sektoreko lurren jabe izanik ezin badute eraikinik sustatu edo eraiki baltzuaren helburua dela-eta.

2. Behin betikoz onestea bederatzigarren baldintzaren aldaketa, Ezkaba-Kanala sektorean desjabetzepeenetik libratzeko ezarritakoen artean, Udal honek 2000ko uztailaren 4ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren arabera; bederatzigarren baldintza honela geldituko da idatzirik:

Desjabetzetik libratutakoak bere gain hartzen ditu konpromisoa eta beharkizuna, Sektore honen Kudeaketa Proiektuan adjudikatzen zaizkion orubeak eta libratutako lurzatiak hirugarren pertsonari ez saldu, eskualdatu edo besterentzeko, zeren eta berak zuzenean sustatu beharko baititu.

Nolanahi dela ere, pro indiviso adjudikatutako orubeetan, baimendurik dago zatitu gabeko partaidetzen eskualdaketa, baldin eta kasuan kasuko orubearen jabekideen artean bada, bertan eraiki ahal izan dadin.

Halaber, orubeen eta eraikin berrien hipoteka guztietarako baimena ematen zaie bai desjabetzapenetik libratutako orubeen sustatzaileei, Ezkaba-Kanala sektorearen Berdinbanaketa prozesuan adjudikatutako lurzatietan halakoak sustatzen badituzte, bai eraikin horiek jabetza horizontalean banatu ondoko zatien erosleei.

Baimena ematen da, orobat, Ezkaba-Kanala sektorearen Hirigintzako Berdinbanaketa prozesuan desjabetuei eta libratuei adjudikatutako partaidetzen jabari-eskualdaketetarako, haiek utzitako herentzia onartzea bada eskualdaketaren arrazoia, haien heriotzaren ondorioz; desjabetzapenetik libratze honetan haiek zuten egoera juridikoa hartuko dute, subrogazioz, legezko oinordekoek edo borondatezkoek.

Azkenik, baimena ematen da merkataritzako sozietateak eratzeko, baldin eta Ezkaba-Kanala sektorean sartutako lurren jabeak diren pertsona fisikoei bakarrik osatzen badituzte, edo pertsona juridikoei, baldin eta baltzuaren helburua ez bada eraikinak sustatu edo eraikitzea; baimena ematen da, halaber, lur horiek sozietateetan sartzeko. Espresuki debekaturik dago horrela eratutako sozietatea aldatzea, baldin eta aldaketa horrek lurra eskualdatzen badizkie hirugarren pertsonari, adjudikatutako lurzati berean partaidetza-kuoten jabekide banaezin ez direnei".

3. Erabaki hau jakinaraztea espedientean interesaturik dauden guztiei, Nafarroako Gobernuari eta Jabetzaren Erregistroari, eta argitara ematea Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta bertako prentsan".

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Antsoainen, 2004ko azaroaren 29an._Alkatea, Alfredo García López.

Iragarkiaren kodea: L0418473